

XIXTULARIA JUJEAREN AITZINEAN

Auzitegi bat
Juje bat, segretario batekin
Jandarmek gizon bat baderamate

JUJEA: Orai Bettiri Ziburu-ren alde.
SEGRETARIOA: Huna nun ekhartzen daukuten.
JUJEA: Ziburu Bettiri, erranen daukuzu egia...
JANDARMEA: Jaun jujea, gizon hunek mintzoa galdua du, mutua da ahatea bezen.
JUJEA: Mutu? Hau ederra dugu... Eta noiztik da mututua?
JANDARMEA: Ez dakit jaun jujea.
JUJEA: Alta ba galdetto zombait egin nahi niozke.
BETTIRI: (*huxtuz*) Agur jaunak.
JUJEA: Zer duzu hola huxtuz artzeko.
BETTIRI: (*huxtuz berriz ere*)
SEGRETARIOA: Aire hori ezagutzen dut: erran nahi du «Agur jaunak»
JUJEA: Ederki jauna. Bai eta zuri ere. Bainan nahiago nuke erran bezinetzat nola den zure deitura.
BETTIRI: (*huxtuz*) Ziburutik Sararat.
SEGRETARIOA: (*kantuz*) Ziburutik Sararat... Ziburu horra deitura eman dautzu.
JUJEA: Ah, aitortu behar dugu gure gizon hau ez dela zozoa... Ea urrun joanen girenez gisa hortan? Zoin da zure izena?
BETTIRI: (*huxtuz...*)

*(Jandarma batek kantuz aire bera:
Bettiri Uhartekoa ah qu'il était bon chasser)*

JUJEA: Ederki. Jaun segretarioa, emaizu izen deiturak izkribuz: Bettiri Ziburu... Eta orai, adixkidea, erradezu non sortu ziren.
BETTIRI: (*huxtuz...*)
JUJEA: (*airea ezaguturik*) Sarratarra naizela, orok badakite... (*segretarioarioari*) emazu Saran... (*Bettiri-ri*) Noiz!
BETTIRI: (*huxtu*)
SEGRETARIOA: Baniz, Mila zortzi ehun eta laueta hogoiean (*Kantuz p. 18*)
JUJEA: Ederki eta zoin hilabetez?
BETTIRI: (*huxtu*)
JANDARMEA: (*bigarrenak*) Maiatza da urteko sasoin ederrena.
JUJEA: Izkiria zazu... Eta zoin egunez?
BETTIRI: (*huxtu*) (*Kantuz p. 100*)
SEGRETARIOA: Ah...(*kantatzen du: «Salvatore gora da»*)... Salvatorez.
JUJEA: Horiek hola errazu zoin kantonamendian den zure herria...
BETTIRI: (*huxtu*) (*Kantuz p. 160*)
JUJEA: (*kantuz*) Espeleta herrian... Segretario jauna, emazu Espeleta... Eta departamendua?
BETTIRI: (*huxtu*) Bet ceù de Paù.
JANDARMEA: Bet ceù de Paù... Basses-Pyrénées chef-lieu Pau... Denak Jakinen ditugu...
JUJEA: Ohointzaz ekarri zaituzte hunat, zer ebatsi duzu?
BETTIRI: (*huxtu*)
SEGRETARIOA: (*kantuz*) Oillanda gazte moko fier bat.
JUJEA: Ah, eta nun ebatsi duzu?
BETTIRI: (*huxtu*)
JANDARMA BATEK: Ostiraletan duzu Garrozen merkatu...

JUJEA: Ah, Garrozeko merkatuan.... Eta nori?
BETTIRI: (*huxtu*) (*Kantuz p. 164*)
SEGRETARIOA: Dama gazte xarmant bat...
JUJEA: Bai bainan haren izena.
BETTIRI: (*huxtu*)
JANDARMA BATEK: Intxauzpeko alaba dendaria
JUJEA: Goizean ala arratsean?
BETTIRI: ...
JUJEA: Goizean goizik jeiki ninduzun... Jaun segretarioa emaitzu denak izkribuz.
SEGRETARIOA: Ari nuzu ari, jaun jujea.
JUJEA: Oillanda hori ebats eta zer egin zinuen.
BETTIRI: (*page 109*)
JANDARMA BATEK: Partitu nintzan herritik...
JUJEA: Eta non jan zinuen?
BETTIRI: (*Kantuz page 36 edo 37*)
SEGRETARIOA: Hantxet oihanean, oihan ederrean.
JUJEA: Eta zerk ekarri zaitu hola ohoin izaiterat?
BETTIRI: (*page 164*)
JANDARMA 2º: Aitak eman zerauten zerurat joaiten...
JUJEA: Zer ordaino baliosa?
BETTIRI: (*huxtu*)
SEGRETARIOA: Aitak eman daut dotea, neurea neurea.
JUJEA: Joko parte, ez da irri egitekotik, ahalge behar zintazke.
BETTIRI: (*Kantuz p. 98*)
JANDARMA BATEK: Egun oroz goizetan aratsetan, bethi nago pena doloretan...
JUJEA: Bai pena doloretan... Preso baitzira...
BETTIRI: (*huxtu*)
SEGRETARIOA: Barka jauna bai dolu dugu...
JUJEA: Adixkidea, ikusten dut mila plazerekin urrikitua zirela zure hutsaz. Hain polliki aitortu duzu guziak, non aldi huntako barkatzen baitautzut. Bihar libratuko zaitut.
BETTIRI: (*Kantuz p. 123*)
JANDARMA: Xoriñuak kaiolan trixterik su kantatzen...
JUJEA: Bai konprenitzen dut. Nahiago zinuke berehala partitu. Zer zaitzue zueri?
JANDARMA BATEK: Funtsean, barka dakioke.
BERTZEAK: Ba, holako huxtulari abila ez bide da uste ginuen bezain gaixtoa.
JUJEA: Eta zuk jaun segretarioa... Zer diozu?
SEGRETARIOA: Nik uste dut berari behar zaiola galdegin zer egin gogo luken.
BETTIRI: (*huxtu*)
JUJEA ETA LAGUNAK KANTUZ: Goazen etxerat goazen etxerat erretira ordu da.
JUJEA: Ontsa da. Libro zira... Bazoazke...
BETTIRI: (*huxtuz «Agur jaunak eta...»*)
*(atheratzen da, eta etxerat orduko itzultzen da erdizka bezala oihu eginez:
«Milesker jaun jujea»)*
JUJEA: Enganatu gaitu...